

GIL 22 Matxitxakoko flysch beltza



Serie turbiditikoia, itsasorantz okertua.

Kokapena (itsasargi berria)

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 27' 16.38" N

Long.: 2° 45' 12.91" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 519.936,03 m

Y: 4.811.323,41 m



Nola iritsi

Bermeotik zuzenean, lehenengo BI-3101 errepidea eta, handik, gero, itsasargirantz doan BI-4203 errepidea hartuz.

GILaren deskribapen laburra

Matxitxako lurmuturra Bizkaiko punturik iparraldekoena da, eta itsasoraino sartzen da. Ikuspegi zoragarria dago handik. Lurmuturra unitate morfoestrutural bat da, supraur-gondar konplexuko flysch beltzaren serie turbiditikoaren gainean garatzen dena.



Serie turbiditikoko kareharriak (kanalekoak) eta lutitak, txandakatuta.

Matxixako lurmuturreko labarretan daude Goi Albiarreko flysch beltz konplexu litoestratigrafikoaren erdiko aldeko jatorri turbiditikoko hareharri-azaleramendurik onenak.

Hareharriek betetzen dute Bermeo-Sollubeko paleoildoia, zeina iparraldean mugatzen baitu Gaztelugatxeko paleogainak. Fazies hareatsu eta lutitikoak sekuentzian daude antolatuta: batetik, kanal-betegarriak eta, bestetik, kanal-arteko eremuak, gainezkatzeen ondoriozko sedimentuak dituztenak. Halaber, ohikoak dira kanaletik lobulura bitarteko trantsizioko sekuentziak. Material horien artean, 10 m-ainoko lodierako hareharri eta lutitazko slumpak daude puntu batzuetan. Slump horiek, ziur asko, failen jarduerarekin loturiko mugimendu sismikoek sortuak izango dira. Paleokorronteen arabera, ekarpen siliziklastikoak iparraldetik etorriak dira, Landetako mendigune deritzon eremu urgaineratik.

Halaber, interes handiko elementu geomorfologikoak dira labar horiek eta Matxixako lurmuturra bera, eta kostaldeko dinamikarekin lotutako prozesu asko ikusten dira han.

Behatzeko punturik onena

Behatzeko punturik onena labarraren behealdea da (puntu gorria); baina hara iristeko, bidexka arriskutsu samar bat hartu behar da, lurmuturraren ekialdera jaisten dena.

Behatzeko puntu irisgarri onena

Matxixako itsasargiaren ingurua, guztiz irisgarria, behatzeko puntu gisa; dena dela, aipatutako egitura sedimentarioak ez dira ondo ikusten hemendik. Gaur egun, interpretazio-panel bat dago han (puntu horia).



Kareharri, kuartzoarenitak, kuartzita eta bioklasten zatiz osatutako konglomeratu polimiktikoaren xehetasuna. Konglomeratu horrek osatzen du kanal turbiditikoaren oineko betegarria.

Lignittoa, turbiditen fazies limolitikoetan.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 22, GIL 88, GIL 95, GIL 105.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 23, GIL 24, GIL 25.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala		●		
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa		●		
	Petrologikoa		●		
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interés económico (extractivo)			Pasado	Potencial	En activo
Interes kulturala: Matxitxako lurmuturra, eta hango itsasargia, erreferentzia geografiko eta kultural garrantzitsua dira.					
Oharrak:	Leku egokia da beste GIL batzuk ikusteko.				

Bibliografia espezifikoa

- Mendiá, M., Aranburu, A., Carracedo, M., González, M.J., Monge-Ganuzas, M. eta Pascual A. (2010). *Lugares de Interés Geológico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Urdaibai Biosfera Erreserba, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 182 or. <http://www.euskadi.net/geodibertsitatea>
- Mendiá, M., Monge-Ganuzas, M., Díaz Pinto, G. eta González Lastra, J. (2011). *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Geologia Interesguneen Gida-liburua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 344. or.
- Robador, A. eta García-Mondéjar, J. 1987. “*Caracteres sedimentológicos generales del Flysch Negro entre Baquio y Guernica (Albiense superior-Cenomaniense inferior, provincia de Vizcaya)*”. *Acta Geológica Hispánica* 21-22, 275-282.
- Vicente-Bravo, J. C. eta Robles, S. 1991. “*Caracterización de las facies de transición canal-lóbulo en la secuencia Jata del Flysch Negro (Albiense superior, norte de Bizkaia)*”. *Geogaceta* 10, 72-75.